

erdiko kaira

kultura eta aisia

Dokumentala

Zai Zoi Bele... ... ele irudi kanta pun!

Zai Zoi Bele dokumentala (Orio Produksioak) ETB3n eskaini berri dute eta ETB1en emango dute urtarrilean. Eriz Zapirain zuzendariak eta Amets Arzallus aurkezle-gidariak *Ez dok amairu*ren historia jasotzen duen dokumentalaz hitz egin digute Pausun (Lapurdi).



Eriz Zapirain

Amets Arzallus

Zai Zoi Bele sei bidaiak osatuta dago. Dokumentalaren gidari den Amets Arzallusen autoan egin zuten bidaia.

EZ DOK AMAIRU entzundakoan, hitzak eta soinua abstraktuak eginen zaizkie hogei urte bete gabeko egungo gaztetxoei. *Zai Zoi Bele* entzun, eta menturaz, Mikel Laboaren ahots berezi eta eztiarekin gogoratuko dira:

Baga, biga, higa,
laga, boga, sega,
Zai, zoi, bele,
harma, tiro, pun!
Xirristi-mirristi
gerrena plat,
Olio zopa

Mikel
Asurmendi

Argazkiak: Dani Blanco

Kikili salda,
Urrup edan edo klik ...
ikimilikiliklik...

Zai Zoi Bele ele sortak eman dio goiburur -1965etik 1972ra iraun zuen- *Ez dok amairu* talde abangoardistaren esperientzia jasotzen duen dokumentalari. Lanaren egileak ez dira gaztetxoak ez helduak ere: Eriz Zapirain zuzendaria (Donostiako Antigua, 1974) eta Amets Arzallus kazetaria (Hendaia, 1983). Ez dira egile bakarrak, noski. Dokumentala sei ataletan eraikia da eta hamaika



dira lantegian parte hartutakoak. Guztiak ezin aipaturik, zuzendariaren eta aurkezlearen izenez gainera, hona beste bost: Martin eta Unai Ibarbia aita-eme ekoizleak, Juan-txo Sardon eta Carlos Sedano kamerariak eta Xabier Zapirain errealizadorea.

Euskal kantagintza berria

Eriz Zapirain *Ez dok amairu* taldearen ibilbidea amaitu ondoren go urtetan munduratu zen, rock-and-roll eta folk-rock garai bete-beteen ostean. 1980ko hamarkadako Euskal Rock Erradikala fenomeno musikalak gaztetxo zela harrapatu zuen. Garai hura *Salda badago* dokumentalean (Orio Produksioak) jaso zuen Zapirainek 2001ean: “*Salda Badago* egin ondoren, ekoizleak [Martin Ibarbia] euskal rock erradikalaren aurretiko garaira jotzeko zuen nahia azaldu zidan”. Euskal rockak

“Gazteek badakite egun zein diren Lertxundi edo Lete, baina *Ez dok amairu?* Garai hartatik gaurrerainoko zubi lana egingo zuen gazte bat behar genuen”

ERIZ ZAPIRAIN

arrasto sakona utzia zion Zapiraini, euskal folkak ez hainbeste; alabaina, *Salda badago* ren egileari euskal kantagintza berriaren sorrera ezagutzeko irrika iltzatu zitzaion: “Eta duela lau urte ekin genion, gogotik. Dokumentaleko lehenengo hiru elkarrizketak 2005ean egin genituen, JoxAnton Artze, Benito Lertxundi eta Jose Angel Irigarayri”. Eta ibilaldiaren amaieran, 30 pertsonatik gora elkarrizketatu eta gero, Xabier Leteri. “Leteren atzetik bi urte ibili ondoren, lortu genuen elkarrizketatzea. Bera azaltzea ezinbestekoa zen”, dio Zapirainek. Lau elkarrizketa horiek nabarmentzen dira dokumentalean, “gure kulturako lau factotum horiek dira dokumentalaren bizkarrezur”.

Mikel Laboari ez zioten elkarrizketa egiterik izan. Laboa ez elkarrizketatzea handicap handia zen, baina hala edo nola moldatu dira. Haren hitzak “artxibotik” hartu dituzte: “2000n EHUK Benitori, Artze anaiei eta Mikeli berari urrezko domina eman zien. Bai Artze anaiei Usurbilgo Plazan eta zio berberaz Mikeli Donostiako Trinitate enparantzan egin zizkieten elkarrizketa laburrak berreskuratu ditugu”. Susana Mujika eta Arantxa Iturbe kazetariak Euskaldi Irratian Laboari egindako elkarrizketen pasarteak ere bildu dituzte: “Mikel

Laboak musikarako dohain izugarriak zituen baina hitz egiteko ez hainbeste. Hala ere, bere testigantza jasotzea inportantea zen niretzat”.

Amets Arzallus kazetari

Eriz Zapirainek, hogeitaka elkarrizketa egin eta gaiaren inguruko dokumentazio guztia arakatuta, gidoiaren lehen zirriborroa osatu zuen. Horrekin, berak eta Unai Ibarbia ekoizleak Amets Arzallus kazetariarekin kontaktatu zuten. Bi solaskideekin bildu garen toki berean hasi zen

harremana, Pausuko (Lapurdi) Xaia ostatuan: “Hementxe bertan bildu ginen Unai, Eriz eta hirurok. Nik ez nuen ezagutzen proiektua, ez asmoa ez produktua. Orio Produkzioak ere, entzutez besterik ez. Telebistako munduak beti eman dit atzerako bat. Ez naiz inoiz irudiarekin lan egiteko gustura sentitu, nire irudia ez dut inoiz begi erosoetatik ikusi. Ez nintzela irudia emateko kazetari pentsatu dut beti”.

Irudiak deserosotasun eta beldur puntu bat emateaz gain, dokumentalaren ideiak eta gidoi potoloak zer pentsa eman zioten kazetari hendaia: “*Ez dok amairu* izenak magia abstraktua dauka. Oso tentagarria da, baina ez dakizu ondo nondik hartu edo jo, ez dakizu forma nola eman. Hala ere, ezetz nola esango nien pentsatuz joan nintzen etxera”.

Astebete zuen erantzuteko eta pixkanaka berotzen hasi zen: “Ezetz esatera ez nintzen ausartzen, eta baietzak tentatzen ninduen”. Egunak aurrera joan ahala ezezkoaren zalantza-balantza baiezkoaren aldera pasa zen: “Eskerrak ez nuen segituan erantzun, bestela, pena handia hartuko nuen dokumentala ikustean”.

Arzallusek etxean eta eskolan entzuna zuen *Ez dok amairu* izena: “Izenak entzuten



dituzu, baina izenak ez du formarik. Mikel Laboa, Xabier Lete, Benito Lertxundi, JoxAnton Artze, Jose Angel Irigaray izen sendoak dira, badakizkizu gauzak haietaz, baina nik lan hau egin arte buruan nuen *Ez dok amairu*ren marrazkia eta oraingoa oso dira ezberdinak”.

15 joko baino gehiago

ZOO ZOROA

Irudimena eta sormena suspertzeko ezin hobea!

3-5 urte PCrako jokoa

www.elhuyar.org/zoozoroa
www.elhuyar.org/edizioak

% 5eko deskontua
www.elhuyar.org/
edizioak
helbidean



Eriz ari da segidan: “Hogeitaka elkarrizketa xehatu eta gidoia egiteak luze jo zuen. Ez zen inola ere ordu bateko dokumentalean sartzen. Beraz, bidaiaren ideia irudikatu nuen. Unai eta biok bidaia tira handiko kazetari gazte batek kontatua izan behar zela erabaki genuen. Gazteek badakite egun zein diren Lertxundi edo Lete, baina *Ez dok amairu?* Garai hartatik gaurrerainoko zubi lana egingo zuen gazte bat behar genuen”.

Arzallus kazetaria, gidoi hura oinarri hartuta, Euskal Herrian gairidiko bidaia egitera ausartu zen, *Ez dok amairu*ren historian zeresana izan duten lekuen bila. Bidaia fisikoa eta bidaia denboran zehar. Eta bidaia bikoitz hori da, hain juxtu, dokumentalaren hari nagusia.

2007ko irailean, bi astetan jardun zuen Ametsek: “Nik ez neuzkan elkarrizketak ikusita, eta abiatzean ez nintzen guztiz kontziente bidaia nolakoa zen. Nik bidaia deskubritu dut dokumentala ikusi dudanean”. Zuberioan edota Baztango Lekarozen bildutako irudiak, esaterako, oso naturalak dira. “Gezurra badirudi ere bat-batean egindakoak dira, inongo prestaketa gabe, inprobisazioari lekua utziz”, dio Erizek.

Ametsen autoan

Amets Arzallusen autoan egin zuten bidaia. “Alokatuko al dugu kotxe bat?”, esan zuten ekoiz-

Bi solaskideekin bildu garen toki berean hasi zen Amets Arzallusen esperientzia, Pausuko (Lapurdi) Xaia ostatuan.

“Ez dok amairu izenak magia abstraktua dauka, ez dakizu ondo nondik hartu edo jo, ez dakizu forma nola eman”

AMETS ARZALLUS

leek. “Nik ez nuen arazorik nire autoan egiteko. Hasi baino egun bat lehenago erabaki genuen. Areago, Unai eta Erizek nire janzkera narratsarekin ateratzea” erabaki zuten. Erizek, irribarrea ezpainetan: “Bazegoen beste kotxe bat aukeratzea, txikiagoa edo handiagoa, baina norbera ohituta dago berea gidatzen”. Ametsek: “Norberak hamaika automatismo eta postura dauka, bere kotxea bere etxea da, hortxe dauka bere klima”. Erizek ebatzi du: “Amets kantu kantari azaldu behar zela ere garbi genuen, gure imaginarioan dauden hainbat kanta abestuz, askok autoan egin ohi dugun moduan”.

Txalaparta funtsezkoa

*Ez dok amairu*ren historian txalaparta oso da garrantzitsua. Zuaznabar anaia txala-

partariaren argazki historikoak bildu dituzte, baita *Pelotari* film laburreko euren pasarte-txoa ere. Artze anaiak oholak astinduz ere ikusi ditugu: “Ama-Lur pelikulan agertzen dira biak, gazte-gazte, baina irudi horiek baino ezezagunagoak diren batzuk lortu ditugu, Iruñean egin ziren kultur topaketa batzuetakoak, 1972koak. Artze anaiak Gayarre antzokiaren kanpoaldean ageri dira, jende pilaren artean”. Badira beste une historiko klabe batzuk, baina horiek argazkien bidez jaso dituzte, ezinbestean. Esaterako, Donostiako Trinitate Plazan *Baga Biga Higa* sentikaria eman zutenekoak benetako perlak dira, baina argazkiak dira. Garai hartako film gutxi dago.

Larraitz

*Ez dok amairu*ren historian badago gertakari biziki aipatu bat: Txindoki mendiaren magalean, Larraitzen, akelarrea berpiztu omen zuten *Ez dok amairu*koek. Dokumentalaren egileek pasarte hori ekarri beharra zuten ezinbestean: “Larraitzeko jaialdia oso presente genuen. Nola irudikatu ordea?”, diosku Zapirainek. “Behin Mikel Laboaren etxean ginela, Mikelen emazte Marisol Bastidak ekitaldiaz dagoen argazki bakarra atera zigun. Sorpresa eta poz izugarria hartu genuen errealizadoreak eta biok”. Omen, Larraitzeko kan-

taldi “mitiko” haren 36 bat argazki aterata zeuden, bobi-na oso bat, baina errebelatzean belatu egin ziren. Haiek garaiak! Marisolek gordea zuen argazkiarekin konformatu dira egileak.

Argazki bilaketa eta bilketa lanetan pasadizo ederrak kontatu dizkigu lanaren zuzendariak. Juan Jose Etxa-beri eta Lezo Urreiztieta-ri Labeguerie-ren diskoekin gertatutakoa antologikoa da; Ximun Haran eta Ugutz Robles-Arangizen elez eta irriz jasota dago: “Urreiztieta eta Etxabe Ziburutik-edo 1.000 diskorekin txalupa batean abiatu ziren, Lekeitio edo Bermeora iristea zuten xede...”. Kontakizunek eta argazkiek osatu dute *Ez dok amairu* agerkari sozio-kulturalaren lekukotasuna.

Dokumentalean hainbat pertsona nabarmentzen dira: Jorge Oteiza eta Mixel Labeguerie, esaterako. Baina, Lourdes Iriondo da egileak gehien harritu dituen: “Lourdes Iriondo isilean pasa zen *Ez dok amairu*ren historia gogoratzean. Guk ez genuen ia ezagutzen, baina klabea da. Lourdes oso garrantzitsua izan zen *Ez dok amairu*ren historian”.

Desegitea

*Ez dok amairu*ren esperientziak urradura txiki batzuk utzi zituen protagonistengan. Taldearen musika eta kantuak bildu zitzaizketen bi diskoak ez ziren azkenik argitara eman. Gaia minbera da. Gure herriaren historia minbera den legetxe. Dokumentalak orduko “zauritxoak” ezititzeko balio dezake. Zuzendariak dioenez, kide guztiek pozarren hartu dute dokumentala. “Partaideak ez ziren kontziente hiltzorian zegoen kultura berpizten ari zirenik. Agian batzuk bai. Baina, nire ustez, gehienak urteen joanean jabetu dira horretaz”. n



Xabier eta Karajito

10€



**Xabier eta Karajito,
Baobab handia**

Xabierrek amets egin du, eta amets horretan Baobab handi bat aurkitu du. Lagun berriak ezagutu eta abentura bat izango du haiekin. Karajito ere saiatuko da Xabierrin bihurtzekiari egiten.

10€



**Xabier eta Karajito,
Itsasoko abentura**

Xabier kostaldeko herririka batera joan da, osabak bere txalupan arrantzatzeri gonbidatu duelako. Karajito azalduko zale bat-batean, beti bezala, bazterrak nahastera. Baina hori bakarrik ez; konturatuko dira pertsona askoren jokabidea ez dela oso egokia ekologiari dagokionez.

10€



**Xabier eta Karajito,
Izarren bila**

Asko ikas dezakegu adineko pertsonengandik. Horregatik murgilduko da Xabier astronomiaren mudi liluragarrian, eta bere irudimenari ateak zabalduko dizkio. Hor izango du bananduezineko bere lagun Karajito ere.

Eskaintza berezia **argia**ko harpidedunentzat



30€



+

Kamixeta opari!





ESKAERAK

☎ 943 37 15 45

www.argia.com/denda

2009KO ABENDUAREN 13A **argia** ◀ 29